

MUSIVERSIKA

Musiversika Unibertsitate Musika ren III Lehiaketa

Arabako Errektoreordetzak eta EHUKulturak "MUSIVERSIKA" Unibertsitate Musika ren III. Lehiaketa sustatu nahi dugu.

Hauek dira lehiaketaren oinarriak:

EHUKulturak eta Arabako Errektoreordetzak "MUSIVERSIKA" Unibertsitate Musika ren III. Lehiaketa antolatu dugu. Hainbat helburu ditugu: autore eta abeslari gazteak deskubritzea eta sustatzea, kulturaren erakargarritasuna eta estilo guztietako musikagintzaren garrantzia indartzea eta bultzatzea, eta euskal unibertsitate campusetako jakin-nahi kulturalari bide ematea, besteak beste.

Helburuak:

- Sormena eta musika sustatzea UPV/EHUko ikasleen zeharkako prestakuntzaren funtsezko zati gisa.
- Kulturalaki aktiboagoak eta parte hartzaileagoak izango diren ikasleak sortzen laguntzea.
- Ikasleek egindako sorkuntza lanei eta artelanei balioa ematea eta sortzen ari diren egitasmoen musika sustatzea eta zabaltzea.
- Akademiak kanpoko sorkuntza lana (musikala) sartzeko UPV/EHUren kultur eskaintzaren barruan.

OINARRIAK

1. Lehiaketak bi fase ditu.

1.FASEA

2. Banakako musika proiektuak edo taldekakoak aurkeztu ahal izango dira, betiere gutxienez taldekideetako bat Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko komunitatearen parte bada (ikaslea, AZPkoa edo irakasle eta ikertzailea). Ziurtagiriak aurkeztu beharko dira hori egiaztatzeko.
3. Edozein musika estilo edo joeratako musika proiektuak onartuko dira lehiaketan, inolako mugarik gabe.
4. Musika proiektuetan, talde edo bakarlariaren lanaren bereizgarri den grabazio bat aurkeztuko da. Edozein formatu onartuko da: mp3 edo beste soinu formatu batzuk, YouTubeko kanalerako esteka, Bandcampeko esteka, Soundcloudetako... Helbide honetara bidali behar da: musiversika@gmail.com.
5. Musika artxiboez edo estekez gain, honako informazio hau bidali beharko da aurretik aipatutako helbide elektronikora:
 - Informazio txostena, musika proiektuaren deskribapen labur batekin; taldekideen izen-abizenak adierazi behar dira, baita gutxienez bi telefono zenbaki eta helbide elektronikoko bat ere.
 - Taldearen edo bakarlariaren argazki bat.
 - Taldearen edo bakarlariaren historia.
 - Rider teknikoa.
 - Gutxienez taldekideetako bat unibertsitate komunitateko kide dela dioen egiaztagiria: unibertsitate txartelaren edo matrikularen fotokopia.
6. Abestiak musika proiektuaren edo taldekideetakoren baten konposizioak izango dira, eta abestien eskubideak ez dira egongo ezekin disko etxeren esku edo abestiak zabaltzeko, grabatzeko eta editatzeko eragozpenak edo betebeharrak ekonomikoak ezartzen dituen beste edozein erakunderen esku.
7. Jaialdian parte hartzeko, gutxienez lau abesti propioz osatutako errepertorioa izan behar dute musika proiektuek.
8. Abestiak aurrez aipatutako helbide elektronikora bidali behar dira 2020ko ekainaren 30era bitartean, eta gaian musika proiektuaren izena adierazi behar da (artista edo taldea), baita mezu bakoitzaren zenbakia ere (bidali diren hurrenkeran) baldin eta bat baino gehiago bidaltzen badira.
9. Antolakuntzak izendatutako batzorde batek 3 musika proiektu hautatuko ditu gehienez, bigarren fasera igarotzeko. Finalisten izenak uztailaren 17tik aurrera ezagutzera emango dira.
10. Era berean, G-9 VI Certamen Musical Interuniversitario delakoan UPV/EHU ordezkatu duen taldea edo interpretea ere aurkeztutako proposamenen artean aukeratu da. Irailaren 5ean izango da Zaragozako Unibertsitatean eta hiru sari banatuko dira: 1. saria 2.500€, 2. saria 1.500€ eta 3. saria 500€. G-9renak eta UPV/EHUko deialdiarenak zeharo bateragarriak dira.

2.FASEA

10. Batzordeak hautatzen dituen lau musika proiektuek lehiaketa/kontzertu batean parte hartuko dute, abestiak zuzenean joz, 2020ko irailaren 16an, asteazkenean, Gasteizko Unibertsitate Pabiloian. Antolatzaileek jarriko dituzte kontzertua emateko behar diren baliabide tekniko guztiak. Taldeek, baina, euren musika tresnak eraman beharko dituzte. Musika tresnaren bat edo beste (bateria, teklatura, etab.) partekatu egingo dira finalisten kontzertuan; horretarako, antolatzaileak taldeekin harremanetan jarriko dira behar besteko aurrerapenarekin. Emanaldietarako beste material espezifikoa guztiak (anplifikadoreak, pedalak, etab.) zehaztu egin behar dira, eta, hala badagokio, taldeek eurek eraman beharko dituzte.

11. Zuzenean joko duten taldeetako kideak inskripzioan agertzen diren berberak izango dira. Aurrez aurkeztutako taldekideren bat ordezkatu edo aldatzeko, justifikazioa aurkeztu beharko da eta antolatzaileek oniritzia eman beharko dute.

12. Antolakuntzak izendatutako batzordeak erabakiko du zeintzuk dien lehiaketaren irabazleak. Honako sari hauek lortuko dituzte irabazleak:

12.1. Lehen saria, 700 euro eskudirutan

12.2. Bigarren saria, 350 euro, bigarren sailkatuarentzat.

12.3. Ikusleen saria, 200 euro.

12.4. Diploma, lau finalistentzat.

13. Gainera, zuzeneko emanaldiko publikoak bozketan parte hartu ahal izango du lau talde finalisten kontzertua amaitu ondoren. Gehiago soiluz puntu gehien lortzen duen taldeak jasoko du publikoaren saria, hau da, 200 euro eskudirutan.

14. Kontzertua amaitzean jakinaraziko dira irabazleak, eta emaitzak hedabideetan argitaratuko dira.

15. Parte hartzen duten musika proiektuek antolatzaileak salbuesita uzten dituzte plagioaren ondorioz edo jabetza intelektualaren arloan indarrean dagoen legediaren beste arau-hausteren baten ondorioz sor daitezkeen erantzukizunetatik.

16. Lehiaketaren antolatzaileek eskubidea izango dute aurkeztutako lanetako batzuk biltzeko eta sustapen material gisa zabaltzeko. Artistek baimena emango dute beren lanen zati bat eta material grafiko osagarria edozein hedabidetan informazio gai gisa zabaltzeko erabil dadin. Antolatzaileek konpromisoa hartzen dute parte hartzaileei lanak zertarako erabiliko diren jakinarazteko; lanak helburu kulturaletarako erabiliko dira beti, ez irabaziak lortzeko asmoz, eta egile eskubideak errespetatuko dira.

17. Lehiaketaren bi faseetan parte hartzeko, oinarri hauek onartu beharko dira. Antolatzaileek eskubidea izango dute aldaketaren bat egiteko edo proposatutako egun edo lekuetako bat aldatzeko, baldin eta lehiaketa ondo egiteko beharrezkoa dela uste badute. Hori bai, behar bezala emango dute edozein aldaketaren berri.

ehukultura



MUSIVERSIKA

Musiversika Unibertsitate Musikaren III Lehiaketa
III Certamen de Música Universitaria Musiversika



Izena emateko epea zabaik: 2020ko ekainaren 30era arte

Azken kontzertua: 2020ko irailaren 16an,
Arabako Campuseko Unibertsitate Pabiloian

Abierto el plazo de inscripción hasta el 30 de junio de 2020

Concierto Final: 16 de Septiembre de 2020 en
el Pabellón Universitario del Campus de Álava



Oinarriak / Bases:

www.chu.eus/es/web/ehukultura-araba/musiversika
www.chu.eus/ehusfera/ehukultura/musiversika

